



URRETXU ETA ZUMARRAGAKO GABONETAKO XXVII. IDAZLAN LEHIAKETA 2015

- 1.- Zumarragan edo Urretxun ikasten duten eskola-umeeek har dezakete parte lehiaketa honetan.
- 2.- Bi talde bereiziko dira: A taldea: LHko 3. eta 4. mailakoak
B taldea: LHko 5. eta 6. mailakoak
- 3.- Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkez dezake.
- 4.- Lanak euskaraz izango dira, eta gaiak honako hauek:
A taldean: "Olentzero ez zen etxe hartara sekula iristen"
B taldean: "Edozein opari baino askoz ederragoa zen zerbait jaso nuen Gabonetan"
- 5.- Neurri aldetik, arau hauek gorde beharko dira:
A taldean: orrialde bat gehienez
B taldean: bi orrialde gehienez
- 6.- Lehiaketan parte hartu ahal izateko, idazlana idatzita dagoen orrian barrenean datu hauez azaldu beharko dira: izen-abizenak, ikastetxea, maila, helbidea eta telefonoa.
- 7.- Idazlanak Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean edo Urretxuko Aizpurunea kultur etxean **aurkeztu beharko dira, azaroaren 27a baino lehen.**
- 8.- Epaimahaiaren **erabakia 2015eko abenduaren 18an**, arratsaldeko 6etan, Urretxuko liburutegian ezagutaraziko da, eta ekitaldi berean sari banaketa egingo da.
- 9.- Epaimahaia Zumarraga eta Urretxuko Kultura Batzordeek izendatuko dute.
- 10.- Sariak honela banatuko dira:
Bi taldeetan: 1. saria: diploma eta opariak
2. saria: diploma eta opariak
3. saria: diploma eta opariak
- 11.- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horrela erabakiz gero, sariak eman gabe gera litezke.